

museo

al



AIRE
LIBRE

an
museoa





Eskuetan duzu *Lasarte-Oriako Aire Libreko Museoaren* gida, gure ingurune urbanoko ondare artistiko interesgarria islatu nahi duena: gure kale eta plazetan goza daitezkeen eskultoretatik hasi eta azken urteotan gure herria apaintzen duten muraletaraino, tartean direlarik estilo eta historia enblematicoeneko eraikinak.

Aurkezten ari gatzaizkizuen hiru ibilbide hauen bitartez, zurekin partekatu nahi dugu artistek, gizonen eta emakumeen arkitekturaren, eskulturaren, pinturaren edo graffitiaren bidez utzi dizkiguten lanen balioa. Hiru ibilbide urbano gure herria hobeto ezagutzeko..

Gida honek ez du bilduma zabal bat izan nahi. Asmoa da bertan ageritako lan artistiko bakoitzaren aurrean gelditzen zaren bakoitzean, gehixeago sakontzeko aukera izatea lan bakoitzari eta haien egileei buruzko informazioarekin osatutako fitxa irakurriz.

Lasarte-Orian barrena paseo bat ematera gonbidatzen zaitut, ibilbide hauek egitera eta puntu bakoitzean gelditzera, gure ondare kulturala hobeto ezagutu dezazun.

En tus manos tienes la guía del *Museo al Aire Libre de Lasarte-Oria*. Una guía que pretende reflejar el interesante patrimonio artístico existente en nuestro entorno urbano: desde las esculturas que se pueden disfrutar en nuestras calles y plazas, a los murales que, desde hace unos años, embellecen nuestro municipio, pasando por los edificios más emblemáticos, por su estilo o historia.

Mediante las tres rutas que te presentamos, deseamos compartir contigo el valor de las obras de artistas, hombres y mujeres, que mediante la arquitectura, la escultura, la pintura o el grafiti nos han dejado. Tres recorridos urbanos para conocer mejor nuestro pueblo.

Esta guía, sin aspirar a ser una recopilación exhaustiva, pretende que, tras detenerte ante cada una de las obras artísticas que en ella aparecen, puedas profundizar un poco más mediante la lectura de la ficha que recoge la información de cada una de las obras y de quienes las realizaron.

Te invito a pasear por Lasarte-Oria, a recorrer estas rutas y detenerte en cada punto, para que conozcas mejor nuestro patrimonio cultural.

MURALAK / MURALES:

01 - 22

ESKULTURA / ESCULTURA:

23 - 33

ARKITEKTURA / ARQUITECTURA: 34 - 45



MURALAK

MURALES



Irrimarra (Karmele Gorroño Idirin, Irene Gutiérrez Irureta)

Jaizkibel plaza, 9 (eskailera / escalera)

Pintura akrilikoa horma gainean / Pintura acrílica sobre pared

Mahai-inguruan dauden hiru emakumeren agerraldia.

Autoreek diote:

Mural honetan, egongela moduko bat irudikatu dugu, non emakume batzuk, mahai inguruan bilduta ageri diren. Emakumeak kafea hartzen eta hizketaldian irudikatu ditugu, baina kasu honetan, trajez jantzita, egun, gizonezkoei bakarrik dagokien kutsu formal hori gehituz. Gure helburua, desberdintasun sexista horiek azalaraztea da, emakumeentzat ez ohikoa den egoera eta estetika normalizatuz.

Escena en la que aparecen tres figuras de mujer alrededor de una mesa.

Las autoras dicen:

En este mural, hemos representado un salón donde aparecen unas mujeres reunidas alrededor de la mesa. Están tomando café y charlando, pero, en este caso, vestidas de traje, añadiendo así un matiz formal que esta ligado principalmente a los hombres. Nuestro objetivo es plasmar esas diferencias sexistas, normalizando estéticas y situaciones que hasta ahora, se entienden como masculinas.



Enara Conde Moreno

Jaizkibel plaza, 7-8 (eskailera / escalera)

Graffiti horma gainean / Graffiti sobre pared

Ataza eta ekintza desberdinak betetzen ari diren gainjarritako figurek osatutako konposizio koloretsua.

Autorak dio:

Nire proposamenaren helburua gizartearen aniztasuna eta genero berdintasuna ikusaraztea da. Horretarako, murallean gizonak, emakumeak zein genero batekin edo bestearekin identifikatzea erraza ez den pertsonaiak agertzen dira, genero bitarraren sistema apurtzeko xedearekin. Pertsonaiak eginkizun ezberdinak betetzen agertzen dira. Tradizionalki gizonak egindakoa eta emakumeek egindakoa alderantzikatu dut, generoa ez baita gizakien gaitasunak definitu dezakeen zerbait.



Composición colorida de figuras superpuestas, desempeñando diversas actividades y tareas.

La autora dice:

Mi propuesta tiene como objetivo visibilizar la diversidad social y la igualdad de género. Para ello, he hecho una composición en la que participan hombres y mujeres como personajes que no se identifican, con unos u otras de forma clara para tratar de romper el binarismo de género. Los personajes aparecen cumpliendo diferentes roles. He querido mostrar a la mujer cumpliendo papeles reservados tradicionalmente a los hombres (trabajando como científica u obrera) y a los hombres haciendo labores que han llevado a cabo las mujeres, a lo largo de la historia, y que a día de hoy se siguen confiando a ellas (principalmente labores de cuidado).



Irimarra (Karmele Gorroño Idirin, Irene Gutiérrez Irureta)

Aralar plaza, 4-5 (pasabidea / pasadizo)

Pintura akrilikoa horma ganean / Pintura acrílica sobre pared

Emakume baten figurak hegoak jaso eta hegan egiten duen eszena. Patroi eta kolore desberdineko hondoa.

Autoreek diote:

Lasarteko "Emakumeen Auzo Etxea" inguratzen duen muralean, egoki iruditu zaigu, emakumeek berdintasunaren alde orain arte eginiko lana goraipatzeaz gain, oraindik ere, lanean jarraitzera animatzen dituen irudi bat sortzea. Kasu honetan, ibilbide moduko bat errepresentatu dugu, non emakumeak hegoak hartu, jauzi egin eta hegan egitea lortzen duen, hainbeste defendatutako askatasuna lortuz.

Escena en la que una figura de mujer coge unas alas y vuela. Fondo con diferentes patrones y colores.

Las autoras dicen:

En este mural que rodea el "Centro Cívico de la Mujer" en Lasarte-Oria, hemos considerado apropiado realizar un mural, en el que, además de alabar el trabajo realizado por mujeres hasta el día de hoy, las anime a seguir luchando por la igualdad. Para ello, hemos representado un proceso donde la mujer recoge unas alas, salta y consigue volar, logrando la libertad por la que tanto ha trabajado.



Estibaliz Vera Ortiz de Zárate

Pablo Mutiozabal kalea, 2 (atzekaldea / trasera)

Teknika mistoa horma gainean / Técnica mixta sobre pared

Kolore eta estanpatu desberdineko oihalak mugimenduan. Muralaren eskuin aldean, eskuiz margotutako oihal collageak "KOLORE ARTEAN" testua irudikatzen dute.

Autoreak dio:

Mairua, zaku-oihalez eta koloretako oihalkiz jantzitako euskal mitologiaren pertsonaiak inspiratutako murala da. Inauteriak heltzeaz zeuden eta inauteriak, herria kolorez eta herritarrak pozez betetzen dituen ospakizuna dira. Muralak, oroitzapen horien guztien izan nahi du; kolorea, aniztasuna, parte-hartzea eta sormena. Jendeak parte hartzearen egin nuen collagea, oihal zuriak pintatuz eta osatuz.

Retales de telas de diferentes colores y estampados en movimiento. A la derecha el texto KOLORE ARTEAN, collage de telas de colores pintadas a mano.

La autora dice:

Fue el "Mairu", personaje mitológico vasco vestido con tela de saco y retales de telas de colores, quien inspiró este mural. Los carnavales estaban cerca, y recuerdo esos días en los que el pueblo se inunda de color y la gente se llena de alegría. La obra quiere reflejar ese momento de color, diversidad, participación y creación. La idea de la participación me llevó a poner telas en blanco para que la gente colaborase pintando y creando el collage de telas.



Asociación de Artistas "Artitadetó" Artisten Elkartea

Iñigo de Loiola kalea, 2

Graffiti eta pintura akrilikoa / Graffiti y pintura acrílica

Forma geometrikoz osatutako paisai koloretsua. Gezi batek, "DIVERSITY" hitzera zuzentzen du begirada.

Autoreek diote:

Gure proposamenak, DIVERSITY, herrialde eta kultura desberdinen arteko ulermena modu grafikoan irudikatzen du. Forma eta koloreak ANIZTASUNA islatzen dute, haien arteko komunikazioa, izaera atsegin eta irekiari esker

Composición de paisaje colorista a través de formas geométricas. Una flecha guía la mirada a la palabra "DIVERSITY".

Las autoras dicen:

DIVERSITY, nuestra propuesta, es la representación gráfica del entendimiento entre los diferentes pueblos y sus distintas culturas. Formas y colores reflejan la DIVERSIDAD, la comunicación entre ambos y el carácter amable y abierto de los mismos.



Alejandro González Flórez

Geltoki kalea, 13 (atzekaldea / trasera). Uistin kalea

Teknika mistoa horma gainean / Técnica mixta sobre pared

Itsas hondo baten eszena, marmoka eta ur- begi zuriz osatuta.

Autoreak dio:

Espazioaren dibertsitatea, teknika eta jolas desberdinak nahastuz landu da. Jolasak arduratzen nau eta jolasik gabe ez legoke benetako obrarik. Hortaz, pintatzean jolasean ibili nintzen eta oso ongi pasa nuela aitortu behar dut. Aniztasunaren isla den, mugimenduz beteriko eta jolaserako eremua.



Escena de un fondo marino con medusas y burbujas blancas de aire.

El autor dice:

Espazioaren dibertsitatea, una obra en la cual se han mezclado varias técnicas y juegos a la hora de ser elaborada. Me preocupa el juego, quiero decir, que sin juego, no podría haber una obra auténtica, así que solo jugué mientras pintaba y la verdad es que me lo pasé muy bien. Un espacio de juego y lleno de movimiento, reflejo de la diversidad.



Ione Zabala Sarrate

Juan XXIII plaza, 2

Graffiti eta pintura akriliko / Graffiti y pintura acrílica

Arraza desberdineko pertsonak besarkada batean elkartuta.

Autoreak dio:

Kathe Köllwitz (1867-1945) artista alemanaren "amak" grabatuan inspirazioa hartuta, Lasarte-Oriako kultur aniztasunari eta batasunari erreferentzia egiten dion murala da. Besarkada batasuna da, elkartasuna, ongietorri-harrera, Lasarte-Oriako herriaren esanahia.

Grupo de personas de distintas razas unidas en un abrazo.

La autora dice:

Los grabados "the mothers" de la artista alemana Kathe Köllwitz (1867-1945) sirven de inspiración para crear este mural que hace referencia a la unión y a la diversidad cultural de Lasarte-Oria. El abrazo es unión, solidaridad, bienvenida, todo lo que el pueblo de Lasarte-Oria significa.



Jorge Gordillo Martínez, Hugo Lomas Fernández

Hipódromo etorbidea, 1

Graffiti horma gainean / Graffiti sobre pared

Zaldizkoa eta zaldi burua. Eskuin aldean barzelonar idazlea zen Noel Clarasó i Serraten "Bihotza" atsotitzaren lehen esaldia: "Eman lehenik zure bihotza eta zaldiak gaindituko du oztopoa".

Autoreek diote:

Hipodromoaren 100. urteurrena eta kokalekua ikusita, ezin zitekeen beste modu batean izan. Ez dago zalantzarik zaldiek historiaren, aniztasunaren eta Lasarte-Oriako herritarren bizitzaren parte direla. Zaldia eta zaldizkoa, lasterka datoz Hipodromotik eta Hipodromo etorbidetik aurrera jarraitzen dute. Zaldia du indarra eta abiadura, baina gu geu gara oztopo baten aurrean makaldu ez gaitzen arima eta bihotza eman behar dugunak.

Jinete y cabeza de caballo. Junto a la figura, primera frase del proverbio "Corazón", del escritor barcelonés Noel Clarasó i Serrat. "Lanza primero tu corazón y tu caballo saltará el obstáculo".

Los autores dicen:

No podría ser de otra manera, el emplazamiento y la celebración de los 100 años del Hipódromo. No cabe duda que los caballos forman parte de la historia y de la vida de los habitantes de Lasarte-Oria y su diversidad. El jinete con su caballo sigue su carrera desde el Hipódromo por Hipódromo etorbidea. El caballo tiene la fuerza y la velocidad, pero somos nosotros los que tenemos que poner nuestro corazón y alma para no desfallecer ante cualquier obstáculo.



Pablo Astrain González

Kale Nagusia, 8 (pasabidea / pasadizo)

Graffiti eta pintura akrilikoa / Graffiti y pintura acrílica

Haur bat hormaren beste aldera begira, des-konektatutako telebista baten gainean.

Autoreak dio:

Nire muralaren protagonista, haur bat da. Bere pikareskaz baliatuz "lelo-kaxa" saihesten du eta aulki moduan erabiltzen du, hormaz bestalde dagoen mundua ikusteko. Hormak gainezka dagoen haurraren errealitatea eta ezezaguna den baina aukeraz beterik dagoen errealitateak banatzen ditu. Hausnarketarako mezua; bizi, ezagutu eta ez diezazutela besteek kontatu.

Niño mirando al otro lado de un muro de piedra, subido a un televisor desenchufado.

El autor dice:

El protagonista de mi mural es un niño que se vale de su picaresca infantil para eludir a "la caja tonta" y utilizarla a modo de banqueta y así poder mirar sobre ese muro que separa su realidad saturada con un mundo desconocido de color lleno de posibilidades. Un mensaje a la reflexión; vive, conoce y que no te cuenten.



Juan Carlos Arango López

Kale Nagusia, 21 (alboan / lateral). Kalbarrio kalea

Teknika mistoa horma gainean / Técnica mixta sobre pared

Emakumea garai bateko Rolls-Royce autoa gidatzen; 1923. urtetik udalerrian ospatzen ziren Automobil-zirkuituei erreferentzia eginez.

Autoreak dio:

Ospakizun baten oroitzapena eta bizirauteko borroka baten lekukotza elkartuta, nahastu egiten dut automobil lasterketen imaginarioa emakume langilearen protagonismoarekin. Lantegietako agente ezinbestekoa ziren emakumeok, eta lanean murgilduta bizi ziren, herri honi bizi-indar ekonomikoa ematen ziotelarik.

Mujer conduciendo un Rolls-Royce antiguo, haciendo referencia al famoso Circuito Automovilístico que se celebraba en el municipio desde 1923.

El autor dice:

Aunando la memoria de una celebración y el testigo de una lucha por sobrevivir, mezclo el imaginario de las carreras automovilísticas, con el protagonismo de la mujer obrera, indispensable agente productor en las factorías, quienes vivían internas en el trabajo dando vida económica a esta villa.



Bertako Artistak / Artistas Locales

Ola kalea, 2-4-6 (atzealdea / trasera)

Pintura akrilikoa horma gainean / Pintura acrílica sobre pared

Haurestetika duen murala. Mundua inguratzeko, jatorri desberdineko lau haur. Atzeko aldean, ostadarra eta aldeetan, koloreetako lore ilara, laino, tximeleta eta txoriak.

Autoreek diote:

Mundu Ko Loreak muralean herriko ume eta heldu pila batek hartu zuen parte. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldea ere gurekin izan zen beren umore eta amore guztia ematen.

Mundu Ko Loreak, munduan ikus ditzakegun kolore guztiak erakusten ditu. Dibertsitatea da gai nagusia. Lurraren inguruan: ostadarra, munduko kolore guztiak azalduz, dibertsitatearen sinbolo bezala. Kultura eta pentsaera diferenteen koloreak... Arraza-kolore guztiak agertzen dira, lurraren inguruan, eta hura besarkatuz arraza guztietako haurrek eta inguruan loreak, kolore desberdinetakoak, hauek ere sinbolo gisa erabiliz.

Lasarte Oria bezala, mural honek munduko kolore eta kultura desberdin guztiak azaltzen ditu...

Mural de estética infantil. El mundo rodeado por cuatro niños de origen diverso. Detrás, el arco iris y, a los lados, una fila de flores de colores, nubes, mariposas y pájaros.

Los autores dicen:

Muchos niños y adultos del pueblo participaron pintando este mural. El grupo de payasos Pirritx, Porrotx y Marimotots, también estuvo con nosotros dando todo su humor y amor. En *Mundu Ko Koloreak*, están presentes todos los colores que podemos visualizar en el mundo. El tema principal es la diversidad.

Alrededor del mundo: como símbolo de la diversidad, el arco iris, con todos los colores del mundo. Los colores de las diferentes culturas y modos de pensar... Aparecen todos los colores de raza alrededor del mundo, abrazándolo, niños de todas las razas y flores, de diferentes colores, como símbolo también.

Al igual que Lasarte-Oria, este mural quiere mostrar todos los colores y culturas del mundo...



Asociación de Artistas "Antxota" Artisten Elkarte

Beko Errota kalea, 2

Pintura akrilikoa horma gainean / Pintura acrílica sobre pared

Hondo geometrikoaren gainean, bi burudun suge urdina, kolore beltzeko lauburu bat eta zortzi puntetako izarrak segida.

Serpiente azul de dos cabezas, un lauburu de color negro y serie de estrellas de ocho puntas rojas, sobre fondo geométrico

Autoreek diote:

"Guztion LasarteOria" proiektuan parte hartuz, Oscar Barrerak egin zuen diseinua eta ideia zen herrian dauden kulturetako batzuk sinbolizatzen dituzten hainbat irudi erabiltzea. Horretarako, lauburu erabili zen euskal kultura irudikatzen. Bestalde, lazeriak arabiar eta espainiar kulturak irudikatzen ditu, mozarabiar artean ageri den elementu bat baita, Iberiar Penintsulako urte musulmanetan. Gogoan izan behar dugu Espainia musulmana izan dela 800 urtean zehar. Azkenik, amerikar herrialdea irudikatzen, maia jatorriko taila bat aukeratu zen, bi buruko sugea, gaur egun Londreseko Britainiar Museoa ikus daitekeena.

Jatorri desberdineko pertsonak; Antxota; Multikulturala AMPA Burunzpe eta beste hainbat parte hartu zuten murala egiten.

Los autores dicen:

El diseño, dentro del proyecto "Guztion Lasarte-Oria", fue realizado por Óscar Barrera y la idea era utilizar varias imágenes que simbolizaran algunas de las culturas existentes en el pueblo. Para ello, se utilizó el lauburu, para representar la cultura vasca. Por otro lado, la lacería mostraría la cultura árabe y española, ya que es un elemento que aparece en el arte mozárabe, durante los años musulmanes en la península ibérica. No está de menos recordar que España ha sido musulmana durante 800 años. Por último, para representar al pueblo americano, se escogió una talla de origen maya, una serpiente bicéfala, la cual actualmente se puede observar en el Museo Británico de Londres.

En la realización del mural participaron personas de diversos orígenes; Antxota; Multikulturala-AMPA Burunzpe y varias personas más.



Ane Arsuaga Iraola

Kale Nagusia, 34 (alboan / lateral)

Pintura akrilikoa horma gainean / Pintura acrílica sobre pared

Lerro zurizko marrazki zentrokidea, koloreetako forma geometrikodun hondoaren gainean.

Dibujo concéntrico con líneas blancas, sobre fondo geométrico de colores.

Autoreak dio:

Lan berezia izan da zalantzarik gabe. Orri zuri bat eduki beharrean, horma zuri-zuria baineukan oinarri, besteak beste.

“Begirunez beteriko begiradak” jaso-ko dituela espero dut, halaxe egin baitut neuk Lasarte-Oriako txoko honetan utzitako arrastoa. Bizitzan zehar elkar trukutzen diren begirada guztien ikuspuntua irudikatu nahi izan dut lan honetan. Begirada guztiak ezberdinak izan arren, guztiek izan beharko luketelako oinarri bera, begirunea.

La autora dice:

Sin duda, ha sido un trabajo muy especial. Entre otras cosas porque esta vez, en lugar de una hoja en blanco, el soporte a intervenir era una gran pared.

Espero que mi obra, como dice el título de la misma (Begirunez Beteriko Begiradak) reciba “Miradas llenas de consideración” tal y como yo lo he hecho al dejar mi huella en este lugar de Lasarte-Oria. En la obra, he querido simbolizar la diversidad de las miradas que se cruzan durante toda la vida. Porque aunque todas las miradas sean distintas, todas necesitan ser respetadas.



Eva Mena

Loidi kalea, 2

Pintura plastikoa eta esprai hormaren gainean. Irudietako hiru muraletarako berezia den ehun batean margotu dira. Ondoren, hormari itsatsi zaizkio gel baten bidez. / Pintura plástica y spray sobre pared. Tres de las imágenes han sido pintadas sobre una tela especial para murales, las cuales han sido, después, adheridas a la pared mediante un gel.

Tamaina handiko murala, ormigoizko horman egina, Plazaolako trena Lasarte-Oriaz zehar pasatzen zela gogoratuz.

Autoreak dio:

“Plazaola” ko argazki sorta batez osatua dago murala; XX mendearen lehenengo erdian zirkulatu zuen tren horrek. Ibilbidea, azkenean, Iruñetik Donostiaraino koa zen, eta Lasarten zuen geltokieta ko bat, lotune gisa funtzionatzen zuena Iruñetik zetorren Plazaolako bide-zatiaren eta Donostiatik Bilbora zihoanaren artean. Argazki horiei ertzak jarri zaizkie antigoaleko argazkien itxura izan dezaten, eta itzal bat proiektatzen dute hondoaren gainean. Argazki bakoitzak tamaina desberdinak ditu, garai hartako argazkien antzera, formatu desberdinekoak izaten baitziren. Paper batean, lineari buruzko informazioa irakur dezakegu, baita geltokien plano bat ikusi ere. Tren-txartel bat ere bada, konposizioa osatzen duena.

Mural del gran tamaño, sobre muro de hormigón, recordando el tren del Plazaola a su paso por Lasarte-Oria.

La autora dice:

El mural se compone de una serie de fotos del “Plazaola”, tren que circuló durante la primera mitad del siglo XX. Su trayecto terminó siendo desde Iruña hasta Donostia y una de sus paradas era en Lasarte, que funcionaba como nodo de conexión entre el tramo del Plazaola que venía desde Iruña y el ferrocarril que iba desde Donostia a Bilbo. A todas las fotos se les ha puesto unos bordes simulando a las fotos antiguas y proyectan una sombra sobre el fondo. Cada foto tiene distintos tamaños, igual que las fotos de la época, que solían ser de distintos formatos. En un papel, podemos leer la información a cerca de la línea y un plano de cuáles fueron su paradas. También, hay un billete del tren completando la composición.



Miguel Ángel Medina Alonso

Kale Nagusia, 46 (alboan / lateral)

Graffiti horma gainean / Graffiti sobre pared

Erdigunean dagoen zirkulu batetik, bertikalki agertzen den azal ilun eta betaurrekodun gizon baten begirada azaltzen zaigu. Inguruan, zortzi ertzeko izar urdinak edo Salomónen izarren formak hondo zuriaren gainean.

Autoreak dio:

ALDA EZAZU IKUSPUNTUA lanak, ikusleari keinu txiki bat besterik ez dio eskatzen, hau da, ikuspegia aldatzea beste nazionalitate batzuetako pertsonen aurrean. Izan ere, askotan, gure aurreiritziengatik edota bestelako zirkuntantziengatik bigarren mailako herritar bihurtzen dira, eta bazterrera uzteko joera izaten dugu, irudian literalki ikus daitekeen bezala. Nahikoa da burua pixka bat okertzea gure berdina dela ikusteko.



Un círculo central nos muestra, en posición vertical, la mirada de un hombre de piel morena y gafas. A su alrededor, sobre fondo blanco, estrellas azules de ocho puntas o estrella de Salomón.

El autor dice:

Esta obra, ALDA EZAZU IKUSPUNTUA, sólo pide al espectador un pequeño gesto por su parte, un pequeño cambio de su punto de vista frente a personas de otras nacionalidades que, muchas veces, por prejuicios nuestros, o bien por circunstancias que hacen que sean ciudadanos en riesgo de exclusión social tendemos a darles de lado, como literalmente se encuentra la imagen plasmada y que basta con inclinar un poco la cabeza para visualizarlo como un igual.



Wallart, Mural Painting

Arranbide kalea, 18

Akrilikoa hormigoaren gainean aplikatua / Aplicación de acrílicos sobre hormigón

Obran ikus daitezke, ezkerretik eskuinera, garaio publikoko hiru ibilgailu. Ezkerrean trolebus bat, erdian 70 hamarkadako autobus bat, eta eskuinean, gaur egungo autobus bat..

Autoreek diote:

Kalean lan egitearen esperientzia beti da aberasgarria. Auzoko pertsonak hurbildu eta beren istorioak partekatu zituzten, margotzen ari ginen antigoaleko irudiek animatuta. Horixe izan zen murala pintatzearen alderik onena. Bestalde, desnibelean margotzearen erronka dago, irudi bakoitza zuzendu behar baita, angelu bakoitza, efektu optikoa konpentsatzeko. Lerro bakar bat ere ez da dirudiena, multzo osoak orekari eutsi diezaion. Gainera, zuri-beltzeko irudiak oso iradokitzaileak dira, indar handikoak, eta istorioa kalera bertara ekartzen dute. Ibilgailuak erabat espraiz margotuak daude; gizaki irudiak berriz, esprairen eta pintzel bidezko akrilikoaren teknikak konbinatuz eginda daude.

En la obra pueden verse, de izquierda a derecha, tres vehículos de transporte público. A la izquierda está un trolebús, en el centro un autobús de los años 70 y a la derecha un autobús actual.

Los autores dicen:

La experiencia de trabajar en la calle siempre es enriquecedora. Las personas del barrio se acercaron y compartieron sus historias animadas por las imágenes antiguas que estábamos pintamos. Esa fue la mejor parte de pintar el mural. Por otro lado, está el reto de pintar en desnivel, teniendo que corregir cada figura, cada ángulo para compensar el efecto óptico. Ninguna de las líneas es lo que parece para que todo el conjunto se mantenga en equilibrio. Además, las imágenes en blanco y negro son sugerentes, tienen mucha fuerza y acercan la historia a pie de calle. Los vehículos están pintados con spray en su totalidad mientras que las figuras humanas combinan la técnica del spray con el acrílico a pincel.



Bikain diseinu grafikoa. Julián Toquero

Oria ibilbidea

Akrilikoa hormigoaren gainean aplikatua / Aplicación de acrílicos sobre hormigón.

Lana bitan banatua dago. Pilotalekuaren atzeko aldean boxetara iristen ari direneko eszena bat ikus daiteke, markagailu eta abarrek. Igoerako arrapalan, pilotua ikus dezakegu garai hartako ibilgailu bat gidatzen, eta errepidearen trazadura. Kasualitatez, mural dagoen lekuan tribunak zeuden eta boxen gunea. Lasarte-Orian gaurdaino egin den muralik handiena da. Guztira, 140m²-ko azalera du.

Autoreak dio:

1923 eta 1935 urteen artean, Lasarte-Oriako automobil-zirkuitua famatua izan zen mundu osoan. 17 km-ko zirkuitu urbano horretan, garai hartako lasterketarik garrantzitsuenak jokatzeko diren. Lan honekin omenaldi bat egin nahi dugu modu batean edo bestean lasterketa haietan parte hartu zuten pertsona guztiei, eta jakina, lasterketa bakoitzari lotzen zitzaion publiko lasarteoriatarrari.

La obra está dividida en dos partes. En la trasera del frontón se puede apreciar una escena de la llegada a boxes, con los marcadores, etc. En la rampa de subida podemos ver un piloto conduciendo un vehículo de la época y el trazado de la carrera. Casualmente, en el lugar que se encuentra el mural estaban las tribunas y la zona de boxes. El mural es el más grande realizado en Lasarte-Oria, hasta la fecha. Tiene, en total, una superficie aproximada de 140 m².

El autor dice:

Entre los años 1923 y 1935, el circuito automovilístico de Lasarte-Oria fue famoso a nivel mundial. En este circuito urbano de 17 kms se disputaban las más importantes carreras de la época. Con esta obra queremos hacer un homenaje a todas las personas que de alguna manera participaron en estas carreras y, por supuesto, al público lasarteoriatarra que se entregaba en cada competición.



Bikain diseinu grafikoa

Oria ibilbidea

Aluminioaren gainean biniloz egindako irudien konposizioa.

Autoreak dio:

Oria auzoak beti izan du bere nortasun propioa Lasarte-Oriaren barruan. Brunet fabrika ezinbestekoa izan zen auzoaren, eta oro har, herriaren garapenerako. Lehenengo eszenan, Bruneteko antzina-ko oihal fabrika ikus dezakegu. 1848an eraikia eta 1986 arte martxan egon zena. Bigarrenean, fabrikako musika bandako kideak ageri dira, 1875 urtean. Jardueraren hasieran, 250 langile inguru izatera iritsi zen Brunet, eta fabrikak langileentzat eraikitako etxeetan bizi ziren. Hurrengo irudian, langile talde bat ageri da fabrikako tailer mekanikoan. Azkenik, laugarren irudian, Oriako Sorgin Dantzako taldea ikus daiteke, 1948an. Dantza taldea ere, jakina, Brunet y Cía fabrikari lotua egon zen. Langileek dantza egiten zuten atsedendietan, eta dantza-taldea osatu zuten 1880 eta 1890 urteen artean. Oriako Sorgin Dantzaren tradizioa gaur egunera iritsi da eta oraindik ere dantza-tu egiten da San Pedro jaietan, abiapuntua Oriako ermitan duelarik.

Composición de imágenes de vinilo sobre aluminio.

El autor dice:

El barrio de Oria siempre ha tenido su identidad propia dentro de Lasarte-Oria. La fábrica de Brunet fue imprescindible para el desarrollo del barrio y del pueblo, en general. En la primera escena podemos ver la antigua fábrica de telas de Brunet, construida en 1848 y que estuvo activa hasta 1986. En la segunda, aparecen los miembros de la banda de música de la fábrica en el año 1875. Al principio de la actividad, Brunet llegó a tener alrededor de 250 obreros, los cuales residían en las casas obreras que la propia fábrica construyó para sus empleados. En la siguiente imagen se aprecia un grupo de obreros en el taller mecánico de la fábrica. Por último, en la cuarta imagen, se puede ver al grupo de la Sorgin Dantza de Oria en el año 1948. La Sorgin Dantza de Oria. El grupo de danzas, como no, también estuvo ligado a la fábrica de Brunet y Cía. Los operarios bailaban en los ratos de ocio y formaron el grupo de Sorgin Dantza ente los años 1880 y 1890. La tradición de la Sorgin Dantza de Oria ha llegado hasta nuestros días y se sigue bailando en las fiestas patronales de San Pedro, teniendo su punto de partida en la ermita de Oria.



ESKULTURA

ESCULTURA



Jesús R. Jauregui

Caddie plaza

Altzairua, gris oxidoizko tratamenduarekin / Acero, con tratamiento de oxidon gris

Altzairuzko bi plakak, horizontal eta gainjarrita dagoen kurbadura duen beste plaka batekin ur-jauzia irudikatzen dute. Eskulturak, hormigoizko oinarria duen lorategi laukizuzen bat du pilareztat.

Autoreak dio:

Egitura minimoa izateko pentsatua dago eskultura. Hiru plano, goranzko mugimendua inprimatzen duten ebakiduradun espazio bat hartzen dutenak, oso geometria xumearekin. Goian, plaka oker bat erorketa formarekin, ematen duelarik multzoa altxatzen edo hegan ari dela.

Eskultura fuente, dos planos verticales sostienen una placa curva, dotando de caída a una ligera cascada de agua.

El autor dice:

La escultura está concebida procurando una estructura mínima, tres planos que ocupan un espacio con unos cortes que imprimen un movimiento ascendente con un geometría muy sencilla, rematando en el alto un placa curva en forma de caída, adquiriendo en conjunto un sentido de elevación, de vuelo.



Koldo Merino Nazabal

Caddie plaza

Altzairua ormigoizko zutabearen gainean. / Acero sobre pilar de hormigón

Altzairuzko formak ormigoizko zutabearen gainean, caddiea irudikatzen dutenak bolaren ibilbideari begira.

Autoreak dio:

Eskultura honek irudikatzen du caddie bat bolak airean egiten duen ibilbideari begira dagoena. Horrela lotu nahi izan nuen Lasarte-Oriako leku honen iragana orainarekin.

Caddieak etorkizunari begiratzen dio; etorkizunak golfa eraman eta etxebizitzak ekarri zizkigun, eta berak sekula bukatuko ez den ibilbide bati begira jarraitzen du.

Formas de acero, sobre pilar de hormigón, que simbolizan al caddie observando la trayectoria de la bola.

El autor dice:

Esta escultura representa a un caddie siguiendo la trayectoria de la bola por el aire. Así quise anudar el pasado de esta zona de Lasarte-Oria con el presente.

El caddie mira al futuro; el futuro se llevó el Golf y nos trajo vivienda, y él sigue mirando una trayectoria que nunca acabará.



Gotzon Huegun Burgos

Asteasuain kalea (lorategia / jardín)

Markinako marmol beltza / Mármol negro de Markina

Hiru zatiz osatutako monolitoa. Motibo nagusia: argizaiola baten irudia, euskarri eta oinarriarekin. Neurriak: 210x80x80 cm

Autoreak dio:

1997an egin zen jatorrizko pieza ordezkatzeko egin da eskultura hau, Danok-Kideren sortzaileetako bat izan zen Juan Jose Mendiluzeren omenez. Haren bizitzako ibilbide guztia boluntariotzaren alorrean garatu zen, erreferente eta sustatzaile bikaina izan zelarik. ARGIZAIOLA baten irudia da motiboa, eta argiranzko bidea sinbolizatzen du.

Monolito compuesto por tres partes. Motivo principal: la figura de una argizaiola, con pilar y base. Dimensiones: 210x80x80 cm

El autor dice:

Esta escultura se ha realizado en sustitución de la pieza original que fue realizada en el año 1997. La obra es una escultura homenaje a la persona de Juan José Mendiluze, quien fue uno de los fundadores de Danok-Kide. Toda su trayectoria vital se desarrollo dentro del ámbito del voluntariado, del que fue un referente y gran impulsor. El motivo es la figura de una ARGIZAIOLA, pieza esta que simboliza el camino hacia la luz.



María José Lacadena Muguerza

Green plaza

Ormigoi armatua, molde metalikoetan enkofratua, tamaina txikiko estaldura zeramiko bitrifikatuz estalia, mosaiko moduan. Eskuz moztuak, jarriak eta leunduak izan ziren piezak. / Hormigón armado encofrado en moldes metálicos, recubierto por un revestimiento cerámico vitrificado de pequeño tamaño, a modo de mosaico, piezas que fueron cortadas, colocadas y pulidas manualmente.

Bi piezako eskultura (ziba bat eta arku bat), haien erlazio bai formal bai kontzeptualaren bidez, kokatuta dauden plazako simetrismoa hausteko sortuak, azalera ordenatuegi bat dinamizatu nahian. Pieza hauetara igo, bertan irrista egin edo zeharkatu egin daitezke. Erabilitako koloreek, gorriaren bidez, lurra eta odola gogorarazten dute; urdinarekin, zerua, ura eta giza arnasa, eta beltzaren bidez, gaua eta heriotza.

Autoreak dio:

La elipse del tiempo pertsonen bizi-zikloaren metafora bat da, bizipenen eta istorioen igarotze modukoa, ikuslea gonbidatzen duelarik irudizko mundu batean sartzerara. Zibak, mugimendu zirkularra iradokitzen du, pertsonen jaiotzari erreferentzia egiten diona eta gonbidatzen duena haurren fantasiazko munduan murgiltzera. Makurtu eta lurrean hondoratuz, berau zeharkatu egiten duela dirudi. Aldamenean arku bat dago, ideien mundua irudikatzen duena, norberak bizitzan zehar ikasten duena. Hura zeharkatzean, giza eskalako tunel batean zaude, bizitzaren igarotzearen metafora bihurtzen dena, orduan sortzen duelarik denboraren elipse hori, zeinetan bi elementu eskultorikoek elkarrekin hitz egiten baitute.

Eskultura en dos piezas (una peonza y un arco) concebidas para que en su relación tanto formal, como conceptual, rompiera el simetrismo de la plaza donde está instalada, pretendiendo dinamizar una superficie demasiado ordenada. Piezas creadas para ser tocadas. En las que poder subirse, deslizarse o ser atravesadas. Los colores utilizados evocan, a través del rojo, la tierra y la sangre; con el azul, el cielo, el agua y la respiración humana, y mediante el negro, la noche y la muerte.

La autora dice:

